


APIRILEKO LIBURU PROPOSAMENAK

2020


HAURRAK

NOLA HARRAPATU ELEFANTE BAT 0-6 URTE



"Elefante bat nahi baduzu, lehenik elefanteak non bizi diren jakin behar duzu..." Horrela hasten da, etxean maskota modura elefante bat nahi duen haurraren istorioa. Jarraibide guztiak zorrotz beteta, lortuko al du bere helburua?

OSABA OTSO 6-8 URTE



Egokitzapen honek Italiako Frioletako ipuin tradizional batean du oinarria. Testu politikoki ez zuzena da. Oso ipuin gomendagarria da ahoz gora kontatzeko.

GAZTE LITERATURA

BESTEAK EZ BEZALAKOA 10-12 URTE



Samuel, psikologoak animatuta, egunkaria idazten hasi da; bertan, bere gustuak, lehentasunak eta beldurrak idazten ditu, bai eta bere buruari jartzen dizkion erronka handiak ere. Egun batean, bere aitak argazki kamera bat oparitu zion

IRIDIUM 12-16 URTE



Irisek ondo kostata ikasi du bizitza aldapa baten modukoa dela, batzuetan beheraka datorrena, arin eta alai, eta beste askotan goraka doana, nekez eta ezinean. Neska gazte ikusgarria da, harik eta patu gaiztoak bizitza aldapan gora jarri zion arte.

HELDUEN LITERATURA

HORI ZEN DENA EUSKAL LITERATURA



Hamasei dira liburu hau osatzen duten piezak; 15+1, hobe esanda (eta irakurleak berehala antzemango du zergatik). Hamasei giro, hamasei mundu, eta bilaketa bakarra: egunerokotasunaren ifrentzuaren eta pitzaduren berri ematea irakurleari.

LA LIBRERÍA DE MONSIEUR PICQUER LITERATURA



Monsieur Picquierrek beti esaten du irakurri gabeko egun bat galdutako egun bat dela. Hala ere, egoitza batean sartzeko bere liburudenda maitea saldu behar izan zuenetik, liburuak ez dira bere gelako apaletatik mugitu.